

ISSN: 2530-6561
2026ko iraila
Bilbo

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzaren eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua
Euskal Herriko
Unibertsitatea
EHU

Settler Colonialism eta Kolonialismoaren bilakaerak: hurbilketa historiko bat oraina hobeto ulertzeko

Endika Rodriguez Martin
Mar Gijón Mendigutia

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Irati Labaien

Amaia Garcia Azpuru

Kideak: Xabier Gainza

Iker Etxano

Itziar Mujika

Unai Villena

Iker Zirion

Aiala Elorrieta

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Settler Colonialism eta Kolonialismoaren bilakaerak: hurbilketa historiko bat oraina hobeto ulertzeko.

Egileak: Endika Rodriguez Martin, Mar Gijón Mendigutia.

hegoak zabalduz - 45. zk. 2026ko iraila

ISSN: 2530-6561



Nazioarteko Lankidetzeta eta
Garapenari buruzko Ikasketak
Institutua
Instituto de Estudios sobre
Desarrollo y Cooperación
Internacional



www.hegoa.ehu.eus

hegoa@ehu.eus

EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre, 81
48015 Bilbo

Tel.: (34) 94 601 70 91

EHU. Koldo Mitxelena Biblioteka
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. (34) 945 01 42 87

EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. (34) 943 01 74 64

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.



hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia.

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Settler Colonialism eta Kolonialismoaren bilakaerak: hurbilketa historiko bat oraina hobeto ulertzeko

Endika Rodriguez Martin; EHU. Soziologia eta Gizarte Lana.
endika.albizu@ehu.eus

Mar Gijón Mendigutia; EHU. Nazioarteko Zuzenbide Publikoa,
Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia.
mar.gijon@ehu.eus

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Marko kronologikoa eta historikoa	8
2.1. Aurrekariak	8
2.2. Faseak	9
3. Kolonialismoaren Formak	11
4. Settler Colonialism ez da Kolonialismoa	14
4.1. Lurraren Jabegoa	14
4.2. Lurraren Gaineko Erreklamazioa	15
4.3. Subiranotasuna	16
4.4. <i>Frontier</i>	17
4.5. Demografia eta Ezabaketa Logikaren Balantze Demografikoa	18
4.6. Arrazializazioa	22
4.7. Indigenatasuna eta Asimilazioa	22
5. Ondorioak	23
6. Bibliografia	24

Settler Colonialism eta Kolonialismoaren bilakaerak: hurbilketa historiko bat oraina hobeto ulertzeko

Laburpena: Dokumentu honetan kolonialismoaren ibilbideari begirada bat emango zaio, gaur egungo gatazka politiko askoren sortzailea eta estatu modernoak moldatu dituen fenomeno den aldetik. Horretarako, testuan zehar, kolonialismoaren hastapenetara hurbilketa bat egingo da, eta, ondoren, kolonialismoaren fase historikoak azalduko dira. Lanaren muina kolonialismoaren marko teorikoaren eta azken hamarkadetan jorratzen hasi den *settler colonialism* delakoren prozesuen arteko diferentziak aztertzean datza, bigarren horren marko teorikoari sakontasun handiagoa emanez. Bukatzeko, ondorio orokor batzuk eskainiko dira, lana borobiltze aldera.

Gako hitzak: Settler Colonialism, Kolonialismoa, Indigena, Balantze Demografikoa.

Abstract: Throughout this document we will take a look to the development of the concept of colonialism, being the founder of many of the current political conflicts and the phenomenon that has shaped modern states. To this end, an approach to the origins of colonialism will be made throughout the text, which will later explain the historical phases of colonialism. The core of the work is to address the differences between the theoretical framework of colonialism and settler colonialism, which has begun to be addressed in recent decades as a new theoretical framework to analyse different colonial development, giving more depth to the theoretical framework of the settler colonialism and its characteristics. Finally, some general conclusions will be offered.

Key words: Settler Colonialism, Colonialism, Indigenous, Demographic Balance.

1. Sarrera

Europaren zabalkuntzarekin batera garatu zen kolonialismoa. XV. mendearen bukaeratik XX. mendera arte garatu zen batez ere, baina gaur egunera arte dirau kasu batzuetan. Testu honek kolonialismoaren bilakaeran eta kolonialismo egituren sorkuntzan jarri nahi du arreta, hortik sortu baitira gaur egungo egitura eta gatazka politiko asko.

Duela hamarkada pare bat, kolonialismo klasikoaren bidez erantzun ezin ziren galderei bidea bilatu nahian, *Settler Colonialism* izeneko arloa garatzen hasi zen ikasketa indigenen barruan. Garai postkoloniala igarota, deskolonizatu gabe geratu diren lurraldeetako egiturak beste ikuspegi batekin aztertzeke erreminta bilakatu da *settler colonialism*-aren teoria. Hutsune bat bete baino gehiago, egitura politiko horien jatorria eta bilakaera ulertu eta aztertu nahi du. Akademia anglosaxoian sortu zen eta, emeki-emeki, egitura kolonial asko aztertzeke marko teoriko bilakatu da.

Testu honetan hurbilketa teoriko bat egin nahi dugu kolonialismo klasikoaren eta *settler colonialism*-aren arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak azaleratzeko, eta kolonien bilakaera historikoak ulertzeke lagungarria izango den marko teoriko bat garatu nahi dugu.

Kapitulu honetan, lehenengo atalean, marko kronologiko eta historiko bat landuko dugu. Kolonialismoaren aurrekariak azalduko ditugu, fenomeno global hori ulertzeke, eta kronologikoki landuko ditugu kolonialismoaren faseak, marko historiko baten barruan. Bigarren atalean, kolonialismoaren formen ezaugarriak landuko ditugu modu teorikoan, eta kolonialismo klasikoaren eta *settler colonialism*-en definizio eta marko kontzeptualei emango diegu garrantzia. Hirugarren atal batean, *settler colonialism*-aren garapenari helduko diogu, teoria horren ezaugarri garrantzitsuenak aztertze aldera. Bukatzeko, aurretik landutako gaien ondorioak aztertuko ditugu.

2. Marko kronologikoa eta historikoa

2.1. Aurrekariak

Kolonialismoaren aurrekariak ulertzeko, Erdi Aroaren bukaeran eta Aro Berriaren hasieran izandako aldaketetan jarri behar dugu arreta. Europako estatuen zabalkuntzaren jatorrian ez zuen faktore batek bakarrik eragin; hainbat faktoreren baturak ahalbidetu zuen Europako herrien hedakuntza. Faktore horien guztien baturak munduaren bilakaera aldatu zuen, mundu globalizatu baten lehen urratsak ekarri zituen eta oraindik ere nabariak diren ondorioak eragin zituen.

Nahiz eta gutxitan azpimarratzen den, bada Europaren pentsamendu politikoaren bilakaeran eta kolonialismoaren oinarrietan berebiziko garrantzia izan zuen gertakari bat: 1453an otomandarren kontrolpean geratu zen Konstantinopla, eta Ekialdeko Erromatar Inperioa desegin egin zen. Aldaketa horrek mendebaldeko Europan eragin handia eduki zuen, hainbat esparrutan. Merkataritza bideak zaildu zituen eta europar herrialdeek bide alternatiboak bilatu behar izan zituzten. Beste alde batetik, arabiar mundutik zetorren jakintzari bidea ireki zion, ekialdetik etorritako jakintsuen bitartez. Jakintza arloen garapenak Europako Errenazimentuaren oinarriak finkatu zituen, eskolastikaren indarra ahuldu zuen eta pentsamendu politiko modernoaren sustraiak sortu zituen. Eraldaketa horiek guztiek Europako modernitatearen oinarriak finkatzen lagundu zuten eta Europako estatu modernoak jaiotza ekarri zuten apurka-apurka. Faktore horiek bost talde nagusitan banatuko ditugu, aldaketak eta ezaugarriak hobeto ulertze aldera.

Lehenik eta behin, faktore ekonomikoak aztertuko ditugu. Esan bezala, Konstantinopla galtzeak merkataritza bide berriak bilatzera eraman zituen europarrak. Asiako merkatuei eta aberastasunei sarrera bermatu nahi zieten Europako produktuak bertan saltzeko eta luxuzko produktuekin eta espezieekin komertzioa egiteko. Merkataritzaren garapenak eta merkatu berrien eta oinarritzko materialen bilaketak bultzada handia eman zien europarren zabalkuntzari.

Zabalkuntza hori gertatzeko ezinbestekoa zen aurrerapen teknologikoa, eta hori izan zen bigarren faktorea. Aurretik azaldutako jakintza transferentziaren bitartez, islamdar jatorriko hainbat aurrerakuntzak merkataritza bideratu eta erraztu zuten. Ekialdeko jakintsuek Europan zehar zabaltu zuten kartografia eta mapa berrien erabilpena, batez ere Italian, eta merkataritza bide berriak hedatu ziren. Astronomiako jakintza berriekin, astrolabioarekin eta koadranteekin batik bat, errazagoa zen nabigatzea, eta brujularen eta itsasontzi berrien garapenak alternatiba bat ekarri zuten kabotaje bidaien aurrean.

Hirugarren faktore bat dago, esparru sozialarekin lotuta, eta kolonialismoaren bilakaeran eta Europaren garapenean eragin zuen. Europan krisi demografiko larriak gertatu ziren izurrite beltzaren erruz, baina hurrengo mendeetan apurka-apurka biztanleriak gorantz egin zuen. Gorakada horrek presioa eta elikagai gehiagoren beharra areagotu zuen, baita lur berrien beharra ere, elikagai horiek sortzeko. Era berean, material eta produktu gehiagoren beharrak aurretik azaldutako merkataritza premia suspertu zuen.

Faktore politikoek ere eragina izan zuten kolonialismoaren garapenean. Europarrak hedatu baino hamarkada batzuk lehenago, potentzia bihurtuko ziren estatuak egonkortzen edo kohesionatzen hasi ziren. Monarkia indartsuagoak eta egonkorragoak ezarri ziren. Gainera, behin barne arazoak bideratuta, kanpora begira jarri zituzten begiak. Monarkiek finantzazioa eman zuten merkataritzarako eta beste lur batzuk aurkitzeko eta konkistatzeko. Erreinuen arteko gatazkak ez ziren desagertu baina, lehia hori lur berrietara eta merkataritzara (abertasuna) zabaltu zenez, kolonizazio prozesuak bultzatu zituzten.

Azkenik, faktore erlijiosoek ere garrantzia eduki zuten kolonialismoaren garapenean. Inprenta asmatzeak eta katolizismoaren eta protestantismoaren bilakaerek moldatu zuten etorkizuneko hedakuntza kolonialaren bidea. Kristautasunaren misio ebanjelizatzaileak eta Eliza katolikoaren babesak izaera erlijiosoa eman zion kolonizazio prozesuari. Europan sortutako gatazka erlijioso horiek mundu osora zabaltzen joan ziren, potentzien ikuspegi erlijiosoekin batera.

Ikusi den moduan, modu orokor batean aztertu ditugu kolonialismoaren oinarriak, zergatik Europak, eta Europako herrialde jakin batzuek lehenik, abantaila hartu zuten beste batzuen aurrean. Behin oinarri horiek aztertuta eta finkatuta, europar kolonialismoaren faseak aztertu behar ditugu orokorki, kronologikoki eta historikoki. Horrek aukera emango digu gaur egungo arazo askoren oinarriak noiz sortu ziren ulertzeko eta gaur egungo gatazkek kolonialismoarekin lotzeko.

2.2. Faseak

Atal honetan, modu oso orokor batean azalduko dugu kolonialismoaren ibilbide kronologikoa. Kolonialismoaren hazkundearekin eta zabalkuntzarekin hasi, eta deskolonizazio prozesuekin amaituko dugu. Lan honetan hurbilketa kontzeptual eta teoriko bat egin nahi dugu, baina badakigu ezinezkoa dela tarte horretan gertatu ziren gertakari konplexu guztiak batzea eta azaltzea. Beraz, oso modu orokorrean hurbilduko gara epe kronologiko horretara, denboraren poderioz sortu diren egiturak ulertzeko. Europar potentzien zabalkuntza, parte hartu zuten herrialdeak eta aldi kronologikoak modu azkar eta sinple batean antolatuko ditugu hurrengo paragrafoetan, eta, horrela, irakurleak ikuspegi global bat jasoko du atal teorikoa landu aurretik. Atal hori, ibilbide kronologikoa eta ekonomikoa hobeto uler daitezen, sei fasetan banatu dugu.

Lehenengo fase batean Iberiar penintsulako erreinuen zabalkuntza aztertu behar da, hor hasi baitzen Europaren zabalkuntza. Merkataritza bide berrien bilaketa prozesuak lurralde berri batzuen aurkikuntza ekarri zuen, eta prozesu hori XV. eta XVI. mendeen artean gertatu zen. Fase horretan Amerikaren "aurkikuntza" azpimarratu behar da bereziki, Afrikako kostaldeko esplorazioarekin eta Asiara iristeko bide komertzialekin lotuta. Nabarmenezkoa da lehen fase horretan ez zela gobernu egiturarik ezarri; hori hurrengo fase batean egin zen, lurralde horien gaineko agintea egonkortzeko.

Bigarren fasea XVI-XVIII mendeen artean kokatu zen. Aurreko potentzia iberiarrak egonkortu egin ziren eta konkistatik antolakuntzara eta gobernantzara pasatu ziren, batez ere Amerikan. Aginte egiturak sortu ziren eta lurraldeetako aberastasunak ustiatzen hasi ziren. Horretarako, hasiera batean, eskulan indigena baliatu zuten; gerora, eskulan esklaboak. Prozesu horrek triangulu bat sortu zuen Europaren, Afrikaren eta Amerikaren artean, eta merkataritza bultzatu zuen. Europatik Afrikara manufakturak bidaltzen ziren; Afrikatik Ameriketara, berriz, esklaboak; eta, azkenik, Ameriketatik Europa lehengaiak bidaltzen ziren. Aldi horretan, biztanleria indigenak galera handiak izan zituen konkistaren bortizkeriaren, gaixotasunen eta lan baldintza gogorren ondorioz.

Hirugarren fasea bigarren faseari gainjarri zitzaion hein handi batean. Fase hori Europako beste potentzia batzuen zabalkuntzarekin hasi zen, XVII. eta XVIII. mendeen artean. Hasierako hedakuntza fasean Iberiar penintsulako erreinuek parte hartu zuten, eta hurrengo fasean, berriz, Frantziak, Erresuma Batuak eta Herbehereek parte hartu zuten, besteak beste. Hedakuntza horrek munduko beste zonaldeetara eraman zuen kolonialismoa, eta Asiara arte zabaldu. Kolonialismo horrek izaera askoz ere komertzialagoa izan zuen, eta aurretik hasitako ustiaketa prozesua areagotu eta aldatu zuen.

Laugarren fasea XIX. mendean zehar gertatu zen, eta inperialismo kolonialaren bilakaeran ditu oinarriak. Berlingo Konferentzia mugarri hartuta, europar potentziek mundua banatu zuten elkarren artean. Aurreko mendeetan ez bezala, barnealdeko lurrak konkistatu zituzten, batez ere Afrikan. Europaren

bihotzean aldaketa sakonak gertatu ziren, eta Industria Iraultzaren garapenak merkatu berrien eta oinarritzko lehengaien bila bultzatu zituen Europako potentziak.

Bosgarren fasea kolonialismoaren krisia da, eta XX. mendean zehar gertatu zen. Nahiz eta XIX. mendean, batez ere, Espainiako kolonia amerikarren independentzia prozesuak izan, XX. mendean jazo zen kolonialismoaren krisia. Mende horretan, Lehen Mundu Gerraren ondorioz, europar potentziek krisi ekonomiko eta politiko larriak izan zituzten. Era berean, nazionalismoaren hedapenak mugimendu antikolonialak sortu zituen, eta gero eta indar handiagoa hartu zuten mugimendu horiek.

Bosgarren fasean gertatutako aldaketek, Bigarren Mundu Gerraren ondorioekin lotuta, kolokan jarri zuten Europaren indar hegemonikoa, eta deskolonizazio prozesu zabal bat piztu zuten mundu mailan. Kolonialismoaren menpe egondako herrialdeetan askapenerako mugimenduak sortu ziren eta sostengu internazionala lortu zuten. Gerra Hotzaren testuingurua ahaztu barik, Asiako eta Afrikako herrialdeak apurka-apurka independentzia lortzen joan ziren XX. mendearen erdialdetik aurrera. Herrialde jaioberriek, oro har, herediatutako arazo asko eduki zituzten beren buruak garatzeko, eta oztopo horiek gaur egunera arte iraun dute.

Prozesu horien guztien amaieran, kolonialismoaren funtzionamendu klasikoari jarraitzen ez zioten hainbat herrialde agertu ziren, eta horien funtzionamendua eta egitura aztertzea du xede testu honek. Horretarako, lehenik eta behin, kolonialismoaren formak aztertuko ditugu, eta hurrengo atal batean landuko ditugu *settler colonialism*-aren ezaugarriak.

3. Kolonialismoaren Formak

Kolonialismoaren faseak aztertu ostean, bilakaera historikoa ulertzeko modu orokor batean izan bada ere, atal honetan kolonialismoaren formak aztertuko ditugu modu teorikoan. Horren bitartez, hobeto ulertuko dugu gero egingo dugun konparaketa.

Kolonialismoaren ezaugarriak ulertzeko eta hortik sortutako formen bilakaerari ikuspegi orokor bat emateko, hurbilketa teoriko bat egingo dugu. Kolonialismo motak sailkatzeko modu bat baino gehiago dago. Autoreek garrantzi handiagoa eman izan diote ezaugarri bati edo besteari, eta askotariko sailkapenak egin dituzte horregatik. Denak ezin ditugu lan honetan jorratu, baina, hurrengo atalean, konparaketa egingo den prozesuan garrantzitsuak izango diren ezaugarrien bitartez antolatuko dugu kolonialismoaren sailkapena.

Lehenik eta behin, definizio orokor bat ematearren, honela definitzen du Philip Curtinek kolonialismoa: herri batek beste kultura bat menderatzea (Curtin, 2000:1). Egia da definizio orokor horri hainbat ñabardura gehitu ahal zaizkiola kolonialismoaren definizioa zehazte aldera, baina metropoliaren eta kolonizatutako lurraldearen arteko erlazioa menpekotasunekoa da eta horrek egitura batzuk sortzen ditu esparru guztietan.

Kolonialismoaren ikuspuntutik, metropolitik haragoko lurak nola menderatzen diren eta lur horietako biztanleriarekin zer-nolako erlazioak ezartzen diren jakiteak berebiziko garrantzia du kolonialismoaren egitura bakoitza ulertzeko. Lehen maila batean, lurralde horrekin dagoen erlazio motari arreta jarrita ulertuko dugu zer-nolako erlazioa dagoen metropoliaren eta koloniaren artean eta zer-nolako interesak eta jarduera ekonomikoak izango diren kolonia horretan. Bi modu ezberdinetan orokortu daiteke metropoliaren eta koloniaren arteko erlazioa: menperatze kolonial zuzena eta ez-zuzena. Bi modu horien artean alde garrantzitsuak daude eta horrek egitura eta menperatze ondorio ezberdinak sortzen ditu metropoli-kolonia erlazioetan.

Metropoliak modu zuzenean agintzen badu kolonia batean, erabateko kontrol politikoa dago bertan. Biztanleria indigenaren aurreko aginte egiturak desagertu egiten dira eta metropolitik etorritako administrazioen bitartez gobernatzen da kolonia. Horrela agintzeko, kontrol militar zuzen bat behar da; hau da, armada baten laguntza. Indigenen instituzio lokalak desagertu egiten dira, edota ia ez dute inolako pisurik koloniaren gobernantzan. Horrelakoa da, adibidez, Frantziako kolonien gobernantza.

Beste bide bat da metropoliak kolonia modu ez-zuzen batean gobernatzea. Sistema kolonialak kolonizazioaren aurreko egiturak eta lider tradizionalak baliatzen ditu, baina metropoliak mugatzen ditu erabaki garrantzitsuenak eta liderren erabakitzeko ahalmena. Kanpo harremanak, merkataritza, ogasuna (zergen bilketa) eta halako esparruak metropoliaren kontrol zuzen eta zorrotzaren pean daude. Gobernantza mota horretan, metropoliak ez du armada handi bat behar lurraldea kontrolatzeko. Horren adibidea da britainiarrek Nigerian eduki zuten gobernantza eredu.

Gobernantza zuzenak eta ez-zuzenak abantailak eta desabantailak dituzte, baina ez dira sistema kontrajarriak, eta potentzia kolonialek, maiz, biak uztartu izan dituzte momentuko beharren arabera. Horren eredurik argiena britainiarrek Indiarekin izan zuten harremana da.

Hala ere, gauza bat da koloniaren eta metropoliaren arteko harremanak aztertzea eta beste gauza bat da koloniaren izaera propioa aztertzea egitura ekonomikoan oinarrituta sortzen diren indigena/kolono erlazioen eta beharren arabera. D. K. Fieldhousek aurretik azaldutako erlazio horiek azpimarratzen ditu, eta lau multzotan bereizten ditu koloniak. Testu honetan interes handia du egitura bakoitzaren

bilakaerak, zeren, nahiz eta kolonia puruak diren eredurik gertukoenak *settler colonialism* kasuak sortzeko, ez dira emaitza hori eduki duten egitura bakarrik.

Lehenik eta behin, kolonia purua dugu, non biztanleria europarra baino ez dagoen. Kolonia mota horietan, kolonoek metropoliaren instituzio sozialen eta politikoen egiturak errepikatzen dituzte; Europako antzeko parlamentu kolonialak eta sistema legalak sortzen dira. Ezaugarri horiek izan dituzten koloniak, progresiboki independentzia lortzen joan zirenak, *settler colonialism*-aren barruan aztertu izan ohi dira. Hurrengo atalean sakontasunez aztertuko ditugu kolonia mota horien ezaugarriak eta bilakaerak.

Fieldhousen arabera, plantazio koloniak dira bigarren egitura. Europarren jabetzako Karibeko plantazioak erabiltzen ditu adibide moduan, gehienbat eskulan esklaboan eta labore bakarreko lur eremu handien ustiaketa oinarritutako ekonomiak. Horrelako kasu askotan, populazio indigena desagerrarazi egiten da, eta ustiatzen den lehengaia metropoliaren beharrianak asetzeko erabiltzen da, edota merkatu internazionalaren eskaria asetzeko.

Hirugarren adibide moduan ustiaketa koloniak jartzen ditu Fieldhousek. Metropoliak bere mesedetan ustiatzen ditu kolonietan dauden lehengaiak. Kasu horietan ez du zertan europar jatorriko populazio handirik egon kolonian, baina bai egitura zentralizatuak eta armada bat. Horien bitartez behartzen dituzte indigenak material jakin batzuk ustiatzera. Zenbait kasutan, eskulan indigenarekin arazoak egon zirenez, eskulan esklaboari zabaldu zitzaion bidea. Ustiapen ekonomikoko modu hori metropoliaren beharrik asetzeko erabiltzen zen, bai metal preziatuak lortzeko bai lehengaez hornitzeko ere. Ustiaketa mota horrek azpiegiturak eraikitzea eskatzen du maiz, baina ez indigenen beharrianen mesedetan, baizik eta metropoliaren beharrianak asetzeko.

Fieldhousek azpimarratutako azken forma koloniala egitura mistoa da. Kolonia mota horretan aurretik azaldu ditugun hiru formen ezaugarriak nahasten dira eta batera existitzen dira: europar jatorriko biztanleak daude, ustiaketa ekonomikoa dago eta populazio indigenaren presentzia nabaria da kolonian.

Koloniaren eta metropoliaren arteko harreman ekonomikoek eragina daukate populazio indigenarekiko erlazioan. Kolonia egitura bakoitzak erlazio mota bat eragiten du biztanleria indigenarekin, baita ustiaketa ekonomiko ezberdin bat ere. Horren ondorio zuzen moduan, populazio indigenaren erlazio mota aztertzea aukera ona da eragin hori aztertzeko. Modu orokor batean, eta hurrengo atalean sakonago aztertu baino lehen, esan dezakegu indigenen eta ustiapen kolonialaren arteko erlazioa oso garrantzitsua dela gaur egungo estatu postkolonialen egitura demografikoa ulertzeko eta indigenen eta kolonoen arteko erlazio egiturak ulertzeko.

Kolonialismoaren hastapenetan, metropolietako indar demografikoa oso urria zen europar zabalkuntza sostengatzeko. Lehen globalizaziora arte ez zuten izan soberakin demografikoa kolonietara bideratzeko aukerarik. Horrek eragin zuzena eduki zuen kolonialismoaren hastapenetan eta populazio indigena ordezkatzeko orduan. Soberakin demografikoa sortzeko gaitasunik ez zutenez, kolonialismoaren lehen garaietan ezinbestekoa izan zen eskulan indigena. Eskulan hori lortzea zailagoa zen eskualdeetan (indigenen populazioa desagertu zelako gaixotasunen eta konkistaren erruz, edota dentsitate baxua zutelako), europar jatorriko behar beste etorkin ekarri ezin bazuten, eskulan esklaboa erabiltzen zuten, batez ere plantazio kolonietan.

Indigenen eta kolonien arteko balantze demografikoek berebiziko garrantzia dute gerora izandako egitura kolonialak ulertzeko. Metropoliaren menpeko ustiaketa ekonomikoak, gerora, zenbait egitura politiko eta demografiko sortu zituen. Deskolonizazio prozesua bukatu ondoren, egitura postkolonialen ezaugarriak ulertzeko eta, batez ere, koloniar jatorriko biztanleek estatu berri horretan zer-nolako

erlazioa zuten ulertzeko, beharrezkoa izan zen aurretik kolonialismoaren bilakaera faseak eta teoria klasikoa berriz aztertzea. Behin deskolonizazio prozesuak bukatuta, egitura postkolonial ugari zeuden populazio exogeno eta ez-indigena nabariarekin, eta populazio horrek sortutako egiturak ez ziren postkolonizazio prozesuan desegin. Beraz, zalantza piztu zen egitura postkolonial horiek tratatzeko orduan, eta *Indigenous Studies* diziplinaren eta Antropologiaren barruan, hutsune teoriko horri irtenbidea topatu nahian, *Settler Colonial Studies* ikasketa arloa sortu zen XX. mendearen bukaeran.

4. Settler Colonialism ez da Kolonialismoa

Aurreko atalean aztertutako egitura kolonialen teoria eta garapena ulertzea ezinbestekoa da gaur egun, *Settler Colonial Studies* ikasketa arloak akademiari zer ekarpen egin nahi dion antzemateko. Ekarpene horrek marko teoriko bat ematen digu kolonialismoaren garaitik datozen estatu moderno askoren eraketa ulertzeko, baita bertan egon diren eta dauden populazio indigenekiko harremanak eta politika publikoak ulertzeko ere.

Hasiera batean, nahasi egin daitezke *settler colonialism* eta kolonialismo klasikoa. Lehen ikusi dugunez, posible da kolonialismo klasiko gisa sortutako egitura politikoak *settler colonialism* bilakatzea, baina, orduan, zeintzuk dira bien arteko ezberdintasunak? Zergatik diote autore askok *settler colonialism*, kolonialismo forma moduan baino gehiago, beste prozesu baten moduan aztertu behar dela?

Desberdintasun nagusia bi prozesu horien oinarrian dagoen logika da. Kolonialismoak, aurretik esan bezala, leku bat (bertako biztanleria barne) kontrolatzea eta ustiatzea du helburu. *Settler colonialism*-aren xedea, berriz, aurretik existitzen ziren egiturak (biztanle indigenak barne) ezabatzea eta beste batzuk eraikitzea da. Posible da, eta kasu askotan hala gertatzen da, kolonialismo egitura gisa jaio den prozesua, denbora tarte bat pasatuta eta deskolonizazio prozesua burututa, *settler colonialism* gisa aztertu behar izatea, bertako populazio eta egitura exogenoak (ez-indigenak) garatu eta mantendu egin direlako. Baina zer ezaugarri dituzte egitura politiko horiek eta zeintzuk dira horien ezaugarri komun eta ezberdintasunik nagusiak?

Patrick Wolfe izan zen hurbilketa teoriko horri forma ematen hasi zitzaion lehen akademikoa. Haren ustez, populazio indigena desagerrarazteko lehen argudioa ez zen izan, adibidez, arraziala edo erlijiosoa; lurraldean sartzeko ahalegina izan zen populazio indigena desagerrarazteko lehen argudioa (Wolfe, 2006: 388). Gerora, behin lurraldean sartzea bermatuta, bestelako egiturak garatzen hasi zen populazio kolonoa.

Kolonialismoaren aurreko definizioa aintzat hartuta, pentsa daiteke kolonizazio purua ematen zen kasuetan zuzenean ematen zela *settler colonialism*, indigenak desagertzen zirelako eta metropoliaren antzerako egiturak eta administrazioak garatzen zirelako. Kolonizazio purua eman zen egitura kolonialetan indigenak desagerrarazteari ekin zitzaion, baina prozesu hori oso konplexua da eta, zenbait arrazoiengatik, oso gutxitan lortu izan da erabateko ezabaketa. Hein batean, erlazio estua dago kolonia puruen eta gerora izango diren *settler colonialism* kasuen artean: kolonia puruen kasu edo saiakera guztiak bilakatu dira kolonoen kolonizazio, baina *settler colonialism* diren kasu guztiak ez dira kolonia puruak izan aurretik. Orduan, zein da *settler colonialism* prozesuaren bereizgarria?

Galdera horri erantzuteko hainbat kontzeptu hartu behar dira kontuan, maila bakoitzean kolonien garapenean eta haien etorkizuneko bideragarritasunean eragina izango dutenak. Hurrengo orrialdeetan ezaugarri horiek aztertuko ditugu, aintzat hartuta ezaugarri horien arteko erlazioek erabat baldintzatuko dutela etorkizuneko kolonia horien izaera. Zazpi ezaugarri aztertzea erabaki dugu *settler colonialism* proiektuen egiturak bere osotasunean ulertzeko. Kolonizazio prozesu guztiaren konplexutasuna hobeto uler dadin, jarraipen kronologiko bat egingo dugu edo egiten saiatuko gara.

4.1. Lurraren Jabegoa

Lehenik eta behin, hausnarketa txiki bat egin beharko genuke lurraren jabegoaren inguruan. Patrick Wolfe, *settler colonialism*-aren teoria garatzen hasi zen lehen ikerlaria, ondorio hauetara heldu zen: populazio indigena desagerrarazteko lehen arrazoia ez zen izan erlijiosoa, etnikoa edo morala, baizik eta lurraldean sartzeko beharrek lotua. Mekanismo horrek jartzen zituen kolonizazio prozesuen bestelako egiturak martxan, lurraldean sartu gabe ezin baita kolonizazio prozesurik egin.

4.2. Lurraren Gaineko Erreklamazioa

Baina lurraldean fisikoki sartzea bermatu baino lehenago beste prozesu bat jartzen da martxan. Ia kasu guztietan gertatzen da prozesu hori, bai *settler colonialism*-ean bai kolonizazio mota klasikoagoetan ere. Kolonizazio prozesua hasi baino lehen, edo hasierako urratsetan, lurraren gaineko erreklamazio bat egiten da. Erreklamazio horren helburua da lurraren gaineko jabego morala eskuratzea. Jabego morala eskuratzeko prozesu hori prozesu fisikoaren aurretik gerta daiteke eta argudio batzuk edo besteak izaten ditu kolonizazio prozesu bakoitzaren arabera, baina beti lortu nahi da gauza bera: populazio indigenak lurrarekin duen lotura apurtzea. Era berean, modu paraleloan baina kontrako noranzkoan, populazio kolonoa lotzen da lurrarekin. Esan bezala, argudio horiek ezberdinak dira kolonizazio proiektu bakoitzean, eta hurrengo lerroetan zenbait eredu azalduko ditugu.

Kolonizazio prozesuetako erreklamazio arruntenetako bat erlijiosoa da. Kasu horretan bi etsenplu aipatuko ditugu, lurren gaineko erreklamazio moral hori azaltzeko. Lehenengo kasua Gaztelako koroak lur berrien gain egin zuen erreklamazio erlijiosoa da. Aita Santuaren eskutik, lur horiek ebanjelizatzeke, lurren jabegoa ematen zitzaien kolonoei. Eskumen horren bitartez konkistatutako lurrei, biztanle kristau batenak ez baziren, automatikoki aplikatzen zitzaien konkistatzaileen subiranotasuna, eta bertako indigenen eskubideak desagerrarazi (Cavedon, 2023: 1-8).

Bigarren kasua, kronologikoki gertuagokoa, sionismoaren erreklamazio erlijiosoa da. XIX. mende bukaeran sortu zen mugimendu politiko eta ideologiko horren helburua da juduentzako aberri/estatu bat sortzea, urteetako jazarpen eta bazterketa bukatzeko asmoz. Mugimendu politikoa zenez, sionismoaren sortzaileak ez ziren judu erlijiosoak, baina, etorkizuneko estatu hori non sortu eztabaidatzen ari zirela, hainbat leku aztertu zituzten eta judaismoarekin lotura zuen lurraldea aukeratu zuten. Erabaki horrek Palestinako lurraldea jarri zuen jopuntuan, arabiar populazio kopuru handia zuen lurraldea. Sionismoak argudio erlijioso bat erabili zuen, eta gaur arte eutsi egiten dio argudioari lurraren gaineko aldarri morala egiteko. Sionismoaren argudioa zen lur hura zela biztanle juduen jaioterria, eta Jainkoak juduen herriari promestu ziola, Biblian agertzen den bezala. Horrek lurraren gaineko aldarria sortzen du, eta bertako palestinar biztanleriaren konexioa eta legitimotasuna desagerrarazi (Haddad, 1974).

Sionismoaren kasua sakon aztertu da: erlijiosoa ez den mugimendu politiko batek juduen komunitatearentzako garrantzi gutxiagoko testu erlijioso bat erabiltzen du bere mesederako. Sionismoaren arabera, Jahvekh juduen herriari promestu zion Palestinako lurra; beraz, lur horren gaineko jabego morala juduen herriari eta haren mugimendu politikoa den sionismoari dagokio.

Bi kasu horien bitartez ikusten da nola erabiltzen den erlijioa lurraren jabegoa aldarrikatzeko, baina kolonialismoak askotariko egiturak garatzeko gaitasuna erakutsi du historian zehar, eta bestelako aldarriak ere erabili izan ditu populazio indigenaren jabegoa deuseztatzeko.

Bigarren kasu batek ekonomiarekin du erlazioa. Kolonialismo prozesuetan, lehen azaldu bezala, berebiziko garrantzia dauka lurra eskuratzeko, eta lurraren ustiaketaren argudioa askotan erabili izan da indigenen eskubideak mugatzeko edo lurrarekin duten lotura apurtzeko. Kasu horretan, proiektu kolonialek, edo kolonoek, argumentu ekonomikoak erabili izan dituzte, esanez indigenak ez direla gai lurrak modu egokian edo behar adinako etekinarekin ustiatzeko. Kolonoek ustiaketa hobe edo efizienteagoa egingo zutela-eta, haiei omen zegokien ustiaketarako eskubidea (Youé, 2018: 70). Argudio hori Europako modernotasunean garatutako pentsamenduaren isla bat dugu. Modernotasunak eta Ilustrazioak arrazionaltasunaren bidea zabaldu zuten Europan zehar, eta Europak bere gain hartu zuen mundu osoan zabaltzeko zeregina. Ikuspegi horren arabera, Europaren betebeharra zen gainontzeko mundua modernotasunaren bidean jartzea.

Argudio horren bitartez, indigenen ustiaketa ekonomikoa desegokia zela esan zuten europar kolonoek eta potentzia kolonialek. Horrela eskuratu zuten lur horien gaineko erabilpen moralak, arrazionaltasunaren eta modernitatearen eskutik. Kolonoek ustiaketa ekonomikoa egokiagoa egiten zutenez, lur horiek berenak behar zuten izan.

Bigarren argudio ekonomiko horren logikari eutsiz, eta modernotasunarekin erlazionatuta, populazio indigenen atzerapen kulturala eta soziala ere argudio moduan erabili zuten lurren gaineko jabego moralak aldarrikatzeko. Denboraren eraginez eta Darwinen ikerketekin lotuta, ustiatzeko gaitasun horien oinarrian arrazoi zientifikoak zeudela argudiatzen hasi ziren. Populazio indigenak azpigaratuta omen zeuden, eta horregatik ez ziren gai lur horiek ondo ustiatzeko (Harris, 2004: 170-178). Horrek eragin zuzena eduki zuen politika arrazistetan.

Hirugarren argudio bat dago, *terra nullius* kontzeptuaren esanahi latindarrarekin lotuta. Lur hutsaren kontzeptu horrek dio lur horiek ez zutela erabilpenik, jaberik edo ustiaketarik deskubrituak izan arte, eta horregatik izan behar zutela kolonizatzailentzat. Kontzeptu hori nahiko nahasgarria da ze, nahiz eta kasu bakan batzuetan aurrez giza biztanlerik izan ez den (Azoreak eta Madeira, adibidez), argudio hori nahieran erabili dute kolonizatzailerek indigenen lurren jabego moralak eta legalak eskuratzeko. Erabilpen hori lotuta dago aurretik azaldutako modernitatearekin eta biztanleria indigenak lurak erabiltzeko eta ustiatzeko dituen moduekin. Kolonoek, adibidez, *terra nullius* izendatzen zituzten landatu gabeko lurak, eta haien jabegoa aldarrikatzen zuten, baina horrek ez du esan nahi lur horiek biztanle indigenek beste prozesu batzuetan erabiltzen ez zituztenik. Beraz, *terra nullius* kontzeptua indigenen lurren jabegoa deuseztatzeak erabili izan da kolonizazio prozesuetan (Burow et al, 2018: 59-64).

Prozesu horren xedea, lehen esan bezala, populazio indigenaren eta aldarrikatzen den lurren arteko lotura apurtzea da. Apurketa horren bitartez errazagoa da populazio indigena desagerraraztea. Prozesu horren bidez kolonoek indigenizazio prozesu bat egiten dute lurrean; hau da, populazio indigenaren kontrako bidea.

4.3. Subiranotasuna

Beste bigarren kontzeptu bat ere azaldu nahiko genuke: subiranotasuna. Izan ere, kolonialismo klasikoa eta *settler colonialism* desberdintzen ditu. Kontzeptu hori sakon landu izan da historian eta beste diziplina batzuetan. Egile batzuen arabera, subiranotasunak kolonoekin edo migrazioekin batera bidaiatu zuen kolonizazio garaian, eta hein handi batean horrela izan zen. Beste diziplina batzuen arabera, kolono edo emigrante horiek beren instituzioekin batera bidaiatzen zuten. Azalpen horiek populazio indigenen subiranotasun galerarekin lotuta daude. Kolonizazio prozesuan, lurren gaineko kontrola, erabakiak hartzeko gaitasuna eta, gerora, kanpo harremanak edukitzeko eskubidea ere populazio exogenoaren esku geratzen zen; hots, metropoliaren esku. Populazio indigenek galdu egiten zuten beren burua guztiz administratzeko eskubidea.

Hala ere, kontzeptu horrek bilakaera ezberdina eduki du historian zehar, eta esanenezake garapen horrek, demografiarekin batera, erabat bereizi izan zituela kolonialismo klasikoa eta *settler colonialism*. Azaldu denez, kolonialismoan metropoliaren eskuetara pasatu zen subiranotasuna, baina zer gertatu zen dinamika horri jarraitu ez zioten kasuetan? Eta deskolonizazio prozesu baten ostean subiranotasuna populazio indigenaren eskuetara pasatu ez zen kasuetan? Irakurketa kronologiko batek, subiranotasunari dagokionez, erantzun ezberdinak emango dizkigu kolonialismo klasikoaren eta *settler colonialism*-aren artean.

Lehenik eta behin, kolonizazio klasikoaren dinamikak ulertuko ditugu, gerora *settler colonialism*-aren zenbait kasu ulertzeko. Kolonizazio prozesua bukatu zenean eta metropoliak beren mendeko lurraldeetatik alde egin zutenean, lurralde horiek independentzia lortu zuten eta aurretik bizi zen

populazio indigenari itzuli zitzaion subiranotasuna. Baliteke deskolonizazio prozesu horretatik jaiotako estatuek antzekotasun gutxi izatea kolonizazioa gertatu baino lehenagoko eremuarekin, egitura guztiz ezberdinak garatu baitziren kolonizazio prozesuaren bitartez, eta gaur egungo herrialde deskolonizatuak horren isla dira. Baina, gai horri dagokionez, gauzarik garrantzitsuenak da subiranotasuna populazio indigenak eskuratu zuela.

Settler colonialism kasuetan, aldiz, subiranotasuna ez zen inoiz itzuli han bizi zen populazio indigenaren eskuetara. Hemen kasu ezberdinak ikus daitezke perspektiba historikoan; adibidez, Espainiako, Frantziako eta Erresuma Batuko kolonizazio prozesuak. Hiru kasu horietan subiranotasunaren kontzeptua nondik nora doan aztertzean dago gakoa. Lehen esan dugun moduan, deskolonizazio prozesuaren bitartez populazio indigenak eskuratzen zuen subiranotasuna, baina kasu hauetan kolonian bertan bizi zen populazio kolonoa zen deskolonizazio prozesuaren bultzatzailea, eta subiranotasuna ez zen metropolitik indigenen eskuetara pasatu, baizik eta kolonoen eskuetara. Horren ondorioz, *settler colonialism* kasua gertatu zen.

Kasurik argienak aurretik azaldutako kolonizazio puru horien ondorio moduan sortu diren herrialdeak dira. Populazio indigena ia desagertu egin zen konkistaren eta lur beharraren ondorioz. Batzuetan, dentsitate baxuko zonaldea izateak erraztu egin zuen kolonoen ezarpena. Gainera, hasieran heldutako kolono askok berekin batera eramaten zuten subiranotasuna, eta ezin zuten metropolira itzuli, gerra erlijiosoetatik ihes egiten ari zirelako edota preso gisa bidaiatu zutelako. Horregatik, heldu ziren lurraldeetan bertan subiranotasunaren ideia garatzea zen haien aukera bakarra, nahiz eta hasiera batean metropoli baten babespean ekin.

Espainiako kasuetan, aldiz, belaunaldiak pasatu ziren Ameriketako kolonietan bizi ziren espainiarren ondorengoak subiranotasunaren kontzeptua garatu eta metropoliaren kontra altxatu ziren arte. Ameriketako altxamenduetatik sortu ziren estatuak ez ziren izan indigenek bultzatutakoak eta kontrolatutakoak. Azken adibide moduan, esan genezake egon izan direla subiranotasun kontzeptua garatzeko aukerarik edo nahirik eduki ez duten kolonizazio prozesuak. Horren kasurik argienetakoa Aljeria da, han bizi ziren kolonoek ez baitzuten metropoliarekiko lotura eten; deskolonizazio prozesua bertako populazio indigenak burutu zuen, gerra baten ostean, eta subiranotasuna eskuratu zuen.

4.4. Frontier

Subiranotasunarekin oso lotuta, lur eta *frontier* kontzeptuak ageri dira *settler colonialism* kasuetan. Lurraren garrantzia atalaren hasieran azaldu da, eta hori da indigenen desagerpena eragiteko lehen arrazoiak. *Settler colonialism* prozesuetan, lurraren beharra bat dator kapitalismoaren garapenarekin: kolonoek lur gehiagoren beharra dute sistema globalaren eta kapitalistaren parte direlako. Lur horren jabegoa, hasiera batean indigenen eskuetan zegoena, kolonoen edo estatu kolonialaren eskuetara pasatzen da.

Lurraren mugak, *frontier* kontzeptua ulertzeko, dinamikoak dira eta kolonizazioaren hastapenetan kolonoek kontrolatutako lurrek ez dute zertan izan metropolitik independentzia eskuratu zuten lur berberak. Hamarkada edo mende horien artean lurren konkista bat gauzatu zen, eta horren eredu argia da Estatu Batuetako Mendebaldeko lurren konkista. Indigenen esku geratzen ziren lurak bereganatzeko beharrez eta asmoz, kolonoak edo armadak bidaltzen ziren mendebaldera, kolonoen "estatuaren" muga mendebalderantz bultzatzeko eta Ozeano Bareraino heltzeko.

Kolonoek kontrolpean eduki zezaketen lurra, batzuetan, bertan bizi zen populazioaren arabera zen eta, horregatik, konkistaren hastapenetan, ekialdeko kostaldean kokatzen ziren kolonoak Estatu Batuetan. Populazio indigena mendebalderantz bultzatzen zuten, eta hor agertzen da *frontier* kontzeptua. Gerora, lurralde horretako lehengaiak (lurra edo mineralak) nahikoa ez zirenean,

mendebalderantz jotzen zuten, garapen kapitalistaren ildoan, hainbat aitzakia erabiliz (indarrez) edo lurak erosiz eta muga mendebalderantz eramanez.

Muga mugiarazteko ezinbestekoa da populazio kolonoa; hots, lurren eskaria eta kontrola gauzatuko duen populazioa. Horrek beste ezaugarri bat aztertzea eskatzen digu, lurrarekin batera berebiziko garrantzia duena kolonizazio prozesuetan: demografia.

4.5. Demografia eta Ezabaketa Logikaren Balantze Demografikoa

Aurreko atalean azaldu den moduan, kolonialismoaren hastapenetan Europako herrialdeak ez ziren gai izan populazio gehigarri kopuru handiak atzerrira bidaltzeko. Kolonialismo prozesu batzuetan, populazio exogenorik gabeko hasierako fasetik populazio indigena desagertu arte, hainbat bilakaera eta erlazio sortu dira indigenen eta kolonoen artean. Populazio indigena desagertze bidean egonik, populazio kolonoak indigenizazio prozesua egiten du. Atal honetan arrazializazio prozesuak eta indigena/kolono erlazioak aztertuko ditugu, demografia oinarritzat hartuta.

Demografia balantzeak eta indigenen eta kolonoen kopuruak oso garrantzitsuak dira haien arteko dinamikak ulertzeko. Hurrengo paragrafoetan, kontuan hartuko ditugu indigenen eta kolonoen arteko balantze demografikoak, Patrick Wolfek zehazten zuen indigenen desagerraraztearen logikari jarraituz (Wolfe, 2006: 387). Haren arabera, populazio indigenaren desagerraraztea lurraldean sartzea bermatzeko gauzatzen da hein handi batean. Egia da hasierako desagerrarazte prozesua testuinguru horretan gertatzen dela, baina ez dugu ahaztu behar oso gutxitan lortu dela indigenak erabat desagerraraztea.

Esan bezala, *settler colonialism*-en kasuan, populazio exogenoaren nahia populazio indigena ezabatzea eta haren lekua hartzea da. Prozesu hori gauzatzen den bitartean hainbat egoera eta balantze demografiko daude. Lehenik eta behin, prozesu horretako orekak aztertuko ditugu grafiko baten bidez, prozesu guztia teorikoki ulertzeko. Hainbat trantsizio egoera eta hazkunde demografiko (natural zein erreal) daude, eta ez dira denak berdinak. Grafikoa eta prozesua Patrick Wolfek deskribatu zuen Ezabaketa Logikan oinarrituta dago, eta Ezabaketa Logikaren Balantze Demografikoa izena du.

Hurrengo taulak prozesu kolonialaren ibilbide demografikoak konparatzen ditu populazio indigena biztanleria bakar den unetik populazio indigena guztiz desagertzen den arte. Bi aldagai daude, alde batetik populazio indigena eta beste alde batetik populazio kolonoa, ehunekotan biak; bien artean populazio osoa eta ehuneko ehuna osatzen dute. Balantze demografikoak zazpi ataletan banatzen dira, bi aldagaien ehunekoak kontuan hartuta.

Lehen atalean, *Hasiera* izenekoan, lehenengo fase bat deskribatzen da: populazio indigena bakarrik existitzen da proiektu kolonialak erreklamatzeko duen lurrian. Beharbada kolonoek erreklamazioa egin dute jadanik, baina biztanleria guzti-guztia indigena da oraindik. Esan genezake hori dela edozein kolonizazio hasi baino lehenagoko fasea.

Hurrengo fasean, *Kritikoa* izenekoan, proiektu kolonialaren hasierako urratsetan gertatzen diren prozesuak azaltzen dira. Indigenen eta kolonoen arteko lehenengo kontaktuak gertatzen dira; kolonoek sarrera fisikoa behar dute proiektuak aurrera egiteko, eta lehen fase horretan gertatzen dira hastapeneko desagerrarazte indigenak. Fase horri kritiko deitzen zaio bi arrazoi nagusirengatik; alde batetik, kolonizazio prozesuan parte hartzen duen populazioa ez delako oso ugaria izaten. Kolonizazioen hastapenean, aurretik azaldu bezala, Europako herrialdeen egoera demografikoa ez zen oso aproposa soberakin demografiko bat kolonizazio prozesuetara bidaltzeko, trantsizio demografikoaren lehen faseetan zeuden herrialde guztiak eta horrek ez zuen soberakin demografikorik ahalbidetzen. Beraz,

hasiera batean, populazio kolonoak ezartzen ziren lur berrietan hazkunde naturalak baldintzatzen zuen haien etorkizun demografikoa. Lehen azalpen horrek bigarren arrazoa aztertzea eramaten gaitu. Fase kritikoa deritzo zeren populazio eta lurraren aldetik proiektu kolonialak minimo kritiko bat behar baitu proiektuaren etorkizuna bermatzeko. Fase horretan lehen desagerraraztea ematen da; ez du zertan fisikoa izan bere osotasunean, eta, aurretik ikusi bezala, *frontier* kontzeptuaren ideia dugu hemen. Lehen fase horretan, baliteke populazio kolonoak “mugetatik” haratago bultzatzea populazio indigena, eta desagerrarazte ez-fisiko bat gauzatzea, etorkizunean, egoera hobearenean, baztertutako populazioarekin eta lurrarekin zer edo zer egiteko esperoan.

Fase horretan sar ditzakegu historikoki porrot egin duten kolonizazio saiakerak, bertan behera geratu direnak lurraren eta populazioaren aldetik ezin izan dutelako minimo hori bermatu. Arrazoi demografikoez aparte, beste zenbait aipa daitezke saiakera horien porrota aztertzeko, arrazoi ekonomikoak adibidez, baina testu honetan populazioaren garrantzia jarri nahi dugu fokua. Argi dago proiektu kolonizatzaileak sostengu demografiko baten beharra daukala egiturak aldatzeko edo birsortzeko, eta sostengu demografiko hori barneko hazkunde naturalaren menpe badago oso zaila izaten da aldaketa sakonak egitea. Aldaketa sakon horiek, oro har, kanpo immigrazio kolonoaren eta indigenak desagerraraztearen bidez egin izan dira, hastapenetan behintzat. Ezintasun horrek porrotera eta deskolonizazio prozesu goiztiarretara bideratu ditu proiektu kolonialak.

Hurrengo fasean, *Orekagabea* izenekoan, populazio kolonoa gutxiengoa da aldarrikatzen duen lurrean, baina haren portzentajea handi samarra da. Nahikoa, gobernantza egiturak garatzen hasteko. Fase horretan hainbat prozesu martxan jartzen dira eta indigenen eta kolonoen arteko kontaktu fisikoa areagotzen da. Kasu batzuetan, kolonoek indigenen lanpostuak berenganatzen dituzte, edo baliteke haiek baztertzen saiatzea, ekonomia berezitu bat sortuz. Beste kasu batzuetan, nahiz eta proiektu kolonialaren ideologiaren ikuspegitik populazio indigena desagerrarazi nahi den, kolonoak behartuta daude indigenak eskulan merke moduan erabiltzera, populazio kolono gehiago lortzea oso zaila izan daitekeelako.

Fase orekagabea, fase kritikoa bezala, deskolonizazio prozesuak gertatzeko aukerak egon izan dira historikoki. Lehen fase horretan proiektu kolonialaren porrota nabarmenagoa izan daiteke, arestian azaldu bezala, baina bigarren faseko kasu askok amaitu dute deskolonizazio prozesu batean. *Settler colonialism* jasan duten estatuak fase horretatik pasatu dira gehiengo demografikoa lortzeko, baina bi eredu azaldu nahiko genituzke modu orokor batean, biak ala biak fase horretan “porrot” egin duten zerrendakoak.

Fase orekagabeko porrotaren lehenengo eredu hori Hegoafrika da. Populazio indigenaren eta kolonoen arteko balantze demografikoa, 90eko hamarkadan, fase horretan zegoen. Zenbait hamarkadatan zehar populazio kolonoaren balantzeak ez zuen lortu fase hori gainditzea; beraz, gutxiengo demografiko batek agintzen zuen, gehiengo indigenaren gainetik. Apartheid politikoa amaitu zenean, kolonoen populazio horren irtenbide bakarra izan zen asimilazio politikoari ekitea, kolonialismoaren egiturak aldatzen zihoazen heinean. Hainbat belaunalditako biztanle kolono horiek (boerrek, gehienbat) ez zeukaten metropolirik atzean, eta, behin apartheid politikoa bukatuta, ezin zuten beste herrialde batera ihes egin.

Bigarren ereduak, Aljeriak hain zuzen, ez zuen Hegoafrikaren bilakaera eduki. Antzekoa zen kolono proportzioa, baina metropoliak emandako trataera ez. Frantziako Estatuak nazioko departamendu baten trataera juridikoa eman zion Aljeriari, eta bertako kolonoek ez zuten bilakaera propio argirik eduki subiranotasun prozesuan. Beraz, deskolonizazioa hasi zenean, bertako kolonoak Frantziara, hau da, metropolira alde egiteko aukera eduki zuten.

Bi adibide horiek nahiko paradigmatisak dira balantze demografiko negatiboak azaltze aldera, biek ematen baitute aukera, bilakaera eta ezaugarri ezberdinak eduki arren, fase berean dauden bi

kasu aztertze. Badira joera bertsuko eredu gehiago, Zimbabwe kasu, baina testu honetan modu orokorrean landu nahi ditugu faseak, herrialde bakoitzaren zehaztasunak alde batera utzita.

Hurrengo fasean, *Orekatua* izenekoan, populazio indigenaren eta populazio kolonoaren arteko oreka dago. Ez dugu aztertuko zein izan den prozesu demografikoa kolonoen eta indigenen kopurua berdina izateko, fase horretan murgilduta dauden edo egon diren herrialdeek dinamika propioak baitituzte. Puntu honetan, balantze demografikoaren deskribapen orokor bat egingo dugu, adibide baten bidez. Fase orekatua nahiko fase sinbolikoa da gehiengo demografikoa lortzeari garrantzia ematen dion proiektu kolonialarentzat, eta, aldi berean, komunitate indigenarentzat ere karga sinboliko handia du gutxiengo bihur daitekeela antzemateak.

Bi kasu azpimarratu ahal dira, balantze horretan egon direnak edo gaur egun daudenak, eta sinbolismo horren garrantzia azpimarratzen dutenak. Lehenengo kasua Kaledonia Berria da. Frantziako Gobernuaren aldaketa batzuek, populazio ez-indigenaren errepresentazio politikoa areagotzearekin lotuta, istiluak sortu zituzten independentziaren aldeko partaideen artean, 2024an. Beste adibidea Palestina Historikoa da: arabiar populazioaren eta populazio juduaren arteko balantze demografikoak kutsu sinboliko handia izan zuen 2010eko hamarkadan, (hazkunde demografikoak tarteko eta juduek Israelera emigratzeko eskubidea kontuan hartuta).


Horren osteko fasea *Babes oreka* izendatu da. Bertan, proiektu kolonizatzaileak gehiengo argi bat dauka populazio indigenarekiko, baina populazio indigenaren desagerraraztea ez da burutu, eta proiektuak hori kontuan hartu behar du zenbait politika garatuz. Fase horren barruan biopolitikak berebiziko garrantzia hartzen du, populazio balantzeak mantentze eta kontrolatze aldera. Zenbait kasu aipa daitezke, baina agian denboran gertukoena Israeleko Estatuaren barruan dauden balantze demografikoen oreka da. Estatuaren barruan, judua ez den populazioaren portzentajea ehuneko hogeita eta hogeita eta bost artekoa da. Balantze hori mantentze aldera, edo behintzat ez handitze aldera, Israeleko estatuak hainbat politika sustatzen ditu arabiar populazioaren mugei bere horretan eusteko.

Azken-aurreko fasean, *itzuleragabea* izenekoan, populazio indigenaren portzentajea oso txikia da kolonoek aldarrikatzen duten lurraren barruan, baina horrek ez du esan nahi populazio indigenak ez duenik agendarik edo prozesu kolonialaren kontrako jarrerarik. Hala ere, populazio orokorraren barruan oso portzentaje txikia duenez, ez dauka proiektu kolonialak ezbaian jartzeko adina indar, eta, oro har, proiektu kolonialek asimilazio (indibidualak) prozesuak jartzen dituzte martxan, errazagoa baita indigena kopuru txikiak asimilatzea estatu kolonialaren egiturak arriskuan jarri gabe.

Era berean, gero ikusiko dugun moduan, proiektu kolonialak sinbolo indigenak bereganatzen ditu eta kolonoen indigenizazio prozesu bat egiten du. Horrelako bi eredu argi dira Australia eta Estatu Batuak. Bi kasu horietan oso txikiak dira populazio aborigenaren eta indigena amerikarraren portzentajeak; bakarturik bizi dira eta ez dira gai estatuaren egiturak desafiatzeko. Prozesu horretan, esan bezala, egitura kolonialak guztiz bereganatzen ditu komunitate indigenen sinboloak. Indigenizazio prozesu bat eta legitimazio prozesu bat gauzatzen ditu, eta finkatu egiten du lurrarekiko lotura. Adibide moduan aipa daiteke nola erabiltzen duen Australiako Estatuak bumerana, sinbolo aborigen bat, edota Estatu Batuetako kirol taldeek baliatzen duten sinbologia indigena. Apropiazio kulturalak ez dira azken fase horietan bakarrik gertatzen, oso ezaguna baita Israelgo gastronomiak produktu palestinarrekin egiten duen erabilpena.

Azkeneko fasea, *Desagertze puntua* izenekoan, bukaerako fase bat da. Populazio indigena guztiz desagertu da, fisikoki, eta estatu kolonialeko biztanle guztiak dira ez-indigenak. Egoera hori nekez gerta daiteke proiektu kolonial luzeetan, desagertzen globala ez delako eman, baina zenbait kasutan, komunitate indigena txikiagoekin eta kolonialismo prozesu goiztiarrekin, populazio indigena guztiz desagertu da konkistaren bortizkeriatatik eta gaixotasunen transmisioetatik.

Kapituluaren atal honetan Ezabaketaren Logikaren Balantze Demografikoen azalpen teorikoa egin dugu. Arestian esan bezala, indigenen ezabaketa/desagerpena du helburu *settler colonialism*-ak, baina aipatu dugu ezabaketa horrek ez duela zertan gertatu, sistema askoz konplexuagoa baita. Desagerrarazte logika horrek bereizten ditu, indigenekin duten erlazioaren ikuspegitik, kolonialismo klasikoa eta *settler colonialism*. Esan bezala, erlazio eta balantze horiek aldatu egiten dira kasuz kasu, baina, etorkizunera begira, aldarrikatzen den lurretik indigenak desagerraraztea da *settler colonialism*-aren helburua. Faseak ez dira beti berdinak, eta fluxu demografikoa, hurrengo lerroetan aztertuko den moduan, arrazializazio prozesuen menpe dago. Azpiko grafikoan daude ikusgai arestian azaldutako fase guztiak, testua hobeto ulertze aldera.



Iturria: Propioa.

Hurrengo paragrafoetan, prozedura bere osotasunean ulertzeko eta kasu bakoitzean gertatu ahal diren aldaerak modu teorikoan aztertzeko, lur baten kolonizazioa hasten denetik lur horretan populazio indigena ez dagoen arte gertatzen diren beste prozesu batzuk azalduko ditugu modu orokor batean. Prozesu horiek eragin zuzena dute ibilbide demografikoan.

Lehenik eta behin, trantsizio fase horretan, indigena/kolono erlazioetan jarri behar da fokua, kasuistika bakoitza azaltzeko. Trantsizio fasean, kolonoek eta indigenek elkarbizitza fisiko bat daukate aldarrikatutako lurrian. Hor, proiektu kolonialak indigenekiko duen jarreraren arabera, bi gauza gerta daitezke. Lehenengoa da proiektu kolonialak indigenen eskulana erabiltzea eta populazio indigenak proiektu kolonialaren garapen ekonomikoan parte hartzea, populazio kolonoa ez delako horren altua edo fase horretan behar ekonomiko eta demografikoek horrela baldintzatzen dutelako. Prozesu horretan, populazio indigena bigarren mailako biztanleria gisa tratatua izan ohi da. Beste aukera bat da proiektu kolonialak, erabaki politikoak medio, populazio indigenaren eskulana baztertzea, eta bazterketa horren bitartez desagerrarazte prozesuan presioa areagotzea, indigenak, fisikoki desagerrarazi baino, aldarrikatutako lur eremu horretatik bidaltzeko (*frontier*).

Baliteke espazio fisikoan gertatzen den elkarbizitzak sistema politikoen eta ekonomikoen apartheidia eragitea eta, hala, populazio indigena baztertzea. Prozesu hori, kasu gehienetan, populazio kolonoa gehiengo nabarmen bat ez denean ematen da. Horren helburua da populazio indigenaren bazterketan sakontzea eta aginte eta erabakitze egituretatik aldentzea. Adibiderik argiena Hegoafrikako apartheid garaia izan zen, non gutxiengo zuriak aginte politikoa lortu baitzuen gehiengo beltza baztertuz.

Aurretik deskribatutako balantze demografikoak, esan bezala, aldakorrak dira. Aldakortasun horiek fluxu demografikoen eraginpean daude. Hasteko, kolonoen populazioa ez bada kapaz modu endogeno baten bitartez gorakada demografiko bat eragiteko, normalean fluxu exogenoen menpe geratzen da indigena/kolono balantzeak aldatzeko ahalmena. Era berean, kontuan hartu behar da populazio indigena desagerrarazteko prozesuen arrakasta, horrek baldintzatzen baititu hasierako oreka demografikoak.

4.6. Arrazializazioa

Balantze demografiko horretan berebiziko garrantzia du arrazializazio prozesuak. Prozesu politiko, juridiko eta sozialen bitartez, kolonizatzaileek giza taldeei arraza identitate hierarkikoak esleitzen dizkiete, lurretatik bidaltzea, indarkeria eta ondorengo ordezkapena justifikatzeko. Prozesu horrek bi aldaera ezberdin ditu. Lehenengoa populazio indigenaren arrazializazio prozesuak dira, non prozesu hori populazio indigenen desagertzearen fasean kokatzen den. Bigarrena, aldiz, populazio kolonoei egokitzen zaizkien arrazializazio prozesuak dira. Proiektu kolonialaren interesen arabera, momentu batean, populazio kolono bat, populazio afroamerikarra adibidez, proiektu kolonialaren parte moduan erabiltzen da populazio indigenaren kontra. Beste momentu batean, ordea, populazio indigena desagertu bada edo ez bada arrisku demografiko bat (fase itzulera gabea), kontrako ibilbidea egiten du eta bazterketa prozesu batean murgiltzen da. Adibide argi bat Estatu Batuetako populazio afroamerikarra dugu, zeren hasiera batean populazio amerikar indigena ordezkatzeko erabili baitzen eta gerora pasatu baitzen, bazterketa arrazista baten bitartez, bigarren maila sozial batera.

4.7. Indigenatasuna eta Asimilazioa

Azkeneko aipamen bat egin beharko genuke. Esan dugu balantze demografiko horien bilakaeran badirela kasuak non populazio indigena guztiz ordezkaturik izan den prozesu historikoetan, baina badira ere desagertu ez diren hainbat komunitate. Komunitate horiek beren nortasunari eusteko artikulazio politikoak egin dituzte, erresistentzia politiko bat antolatu dute, kolonizazio prozesuen salaketa aktiboa egin dute eta bestelako erlazioak berreskuratu eta antolatu dituzte gizartean eta ingurune naturalean. Prozesu hori indigenatasun izeneko marko teorikoaren barruan sailkatzen da, eta indar handia hartu du azken hamarkadetan; marko kritiko bihurtu da bizirik dirauten komunitate indigenen identitate kolektiboarentzat.

Prozesu hori estatu kolonialen asimilazio saiakeren kontrako artikulazioa izan da. Azken-aurreko fasean azaldu bezala, proiektu koloniala saia daiteke gutxiengo populazio indigenena asimilatzen. Orokorrean, asimilazio indibidualez ari gara, eta komunitatearen izaera kolektiboa apurtzen saiatzen da. Horren barruan, eta saiakera horri kritika zuzena eginez, bizirik dirauten komunitate indigenek izaera kolektiboa garatzen dute indigenatasunaren bitartez, eta aurre egiten diote desagertze prozesuari.

5. Ondorioak

Testu honen bitartez, modu orokor batean hurbildu nahi izan dugu mota bateko eta besteko kolonialismo prozesuetara, jakinda gaiaren konplexutasunak eta lanaren luzerak erronka handia ekarriko zuela. Gaur egungo gizarteak exogenikoki edo endogenikoki diseinatu duen fenomeno baten bilakaera aztertu nahi izan dugu. Prozesu kolonialak noiz sortu eta nola garatu diren ikustea ezinbestekoa da prozesu guztiaren bilakaera ulertzeko, baita gaur egungo herrialdeen egoera politikoa, soziala eta demografikoa ulertzeko ere. Horregatik, lan honek hausnarketa zehatzagoa bete du *Settler Colonialism*-aren inguruan, erreminta teorikoa garatuz eta prozesu kolonial klasikoekin alderatuz.

Testuan zehar, modu ordenatuan, kolonialismoaren aurrekariei begiratu diegu. Fenomenoaren jatorria ulertzeko, garrantzia eman nahi izan diegu prozesua piztu zuten arrazoiei. Nahiz eta, hasiera batean, europar jatorria argia den, historian zehar egon izan dira Europarekin loturarik gabeko fenomeno kolonialak, baina guk europar kolonialismoaren hastapenak eta zergatiak hausnartu ditugu, ondorengo egitura kolonialen bilakaerak ulertzen laguntzeko.

Hortik abiatuta eta hastapenetatik hasita, kolonialismoaren bilakaera historiko-kronologikoa aztertu dugu sei fasetan. Fase horien bilakaerak laguntzen digu kolonialismoaren bilakaera historikoa ulertzen, gaur egungo herrialdeen egiturak prozesu horien ondorioak baitira. Prozesu horien guztien bilakaera *settler colonialism*-ean zentratu dugu, behin deskolonizazio prozesuak "bukatuta", oraindik ere egitura kolonialak garatzen eta erabiltzen dituzten kasuak aztertzeko.

Esan bezala, kolonialismoaren prozesuak ez dira egitura homogeenak, eta testu honek, modu sinplean bada ere, kolonialismoaren forma guztietara hurbildu nahi izan du *settler colonialism*-aren konparaketa bat egiteko. Kolonialismo klasiko mota horien eta *settler colonialism*-aren ezaugarrien arteko konparaketan, populazio indigenaren trataera izan da eztabaidagai, bien arteko berezitasun nabarmenena populazio indigena desagerrarazteko nahia baita. Ezberdintasun epistemiko horiek kolokan jarri dituzte kolonialismoa ulertzeko teoriak eta prozedurak.

Testuaren azken atalean *settler colonialism*-aren ezaugarrietan sakondu dugu. *Settler colonialism*-ak ezaugarri propio batzuk ditu, kolonialismo klasikotik ezberdintzen dituenak, edo egitura ezberdinak garatzen ditu behintzat. Besteak beste, subiranotasuna, Ezabaketa Logika, *Frontier* eta Ezabaketa Logikaren Balantze Demografikoa landu ditugu egitura kolonialak azaltzeko. Atal honetan, babes teoriko baten bidez, *settler colonialism*-aren ezaugarri nagusiak hausnartzeko aukera eman nahi izan diogu irakurleari.

Bukatzeko, azpimarratu egin behar da zer-nolako garrantzia duen *settler colonialism*-ak gaur egungo errealitateak aztertzeko. Testuaren hasieran esan bezala, mundu anglosaxoitik datorren marko teoriko hori tresna egokia da kolonialismo klasikoaren hutsuneak betetzeko, garaiko egitura askoren marko teorikoa mugatzeko eta aurretik marko bat baino gehiagotan aztertzen ziren kasuak marko bakar batean konparatzeko.

6. Bibliografia

- BUROW, P. B., BROCK, S., eta DOVE, M. R. (2018). "Unsettling the Land: Indigeneity, Ontology, and Hybridity in Settler Colonialism". *Environment and Society*, 9(1), 57-75.
- CAVEDON, Matthew. (2023). *From the Pope's Hand to Indigenous Lands: Alexander VI in Spanish Imperialism*. Brill.
- CURTIN, Philip. D. (2000). *The world and the West: The European challenge and the overseas response in the age of empire*. Cambridge University Press.
- HADDAD, Hassan. S. (1974). "The Biblical Bases of Zionist Colonialism." *Journal of Palestine Studies*, 3(4), 97-113.
- HARRIS, Cole. (2004). "How did colonialism dispossess? Comments from an edge of empire". *Annals of the Association of American Geographers*, 94(1), 165-182.
- WOLFE, Patrick. (2006). "Settler Colonialism and the Elimination of the Native". *Journal of Genocide Research*, 8(4), 387-409.
- YOUÉ, Chris. (2018). "Settler colonialism or colonies with settlers?". *Canadian Journal of African Studies/Revue canadienne des études africaines*, 52(1), 69-85.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martinez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUKo Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.

15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. **Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria.** Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. **Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina.** Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. **Herri Administrazioaren eraketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak.** Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. **Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena.** Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa¹, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Analisi Ekonomikoko Saila, EHU.
21. **Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatibak bila.** Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. **Errenta eta aberastasun banaketaren desperekotasuna munduan.** Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. **Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak.** M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. **Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak.** Eduardo Bidaurrezaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. **Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan.** Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.
26. **Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomenoak.** Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKIko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. **Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala.** Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeko erronka.** Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo. Hegoaren Hezkuntza Taldea.
29. **Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat.** Laura Feal Sánchez.
30. **Munduko ekonomiaren erronka demografikoak.** Ángeles Sánchez Díez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

31. **Zaintza eta zahartzaroa: XXI. mendeko erronkak.** Matxalen Legarreta-Iza. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Uzuri Castelo Moñux. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Alaitz Uriarte Goikoetxea. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Maider Barañano Uribarri. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Marina Sagastizabal Emilio-Yus. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
32. **Ekofeminismoak. Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea.** Amaia Pérez Orozco. Colectiva XXK. Feminismoak, pentsamendua eta ekintza.
33. **Sexu eta genero aniztasuna aztertzeako gakoak.** Aimar Rubio Llona. Hegoako Kolaboratzailea, UPV/EHU.
34. **Zientzia eta feminismoak: zientziari bizitzaren iraunkortasunetik begiratzen.** Vane Calero Blanco. Sorkin, alboratorio de saberes / jakintzen iraultegia.
35. **Garapen jasangarriaren oinarri esentzialistak. 2030 Agendaren inguruko gogoeta filosofikoa.** Juan Telleria. Filosofia Saila, PRAXIS ikerketa taldea eta Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
36. **Inurriak baikin.** Kolapsoa ez da saihestezina gizarte konplexuetan. Gorka Bueno. Ekopol ikerketa-taldea. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
37. **Gizarte desberdintasunak osasunean: zer eragin dute euskadiko herritarrengan?** Amaia Bacigalupe. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Erika Valero. Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Erizaintza 2 Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Yolanda González-Rábago. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Unai Martín. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK.
38. **Zer da Desazkundera?** Adrián Almazán. THECO ikerketa-taldea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea.
39. **Etika eta garapena.** Imanol Zubero. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila, UPV/EHU.
40. **Lanaren Ekonomia, lan merkatuaren azterketa soziologikotik Euskal Herriko lan harremanen garapen juridikora arte.** Endika Alabort Amundarain. Euskal Herriko Unibertsitatearen Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoko Saileko irakaslea. Andrea de Vicente Arias. Euskal Herriko Unibertsitatearen Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Saileko irakaslea. Eki Etxebarria Respaldiza. Herriko Unibertsitatearen Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea. Jon Bernat Zubiri Rey. Euskal Herriko Unibertsitatearen Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea.
41. **Zientzia eta Teknologiari begirada giza garapenetik eta eraldaketa sozialetik.** Unai Villena Camarero, Joseba Sainz de Murieta Mangado. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
42. **Genero zeharkakotasunetik intersektionalitatera: genealogiak, garapen instituzionala eta eraldaketarako aukerak politika publikoetan.** Uxue Zugaza Goienetxea, Miriam Ureta García. Politika eta Administrazio Zientzien saileko irakasle eta ikerlariak, eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kideak.
43. **Kazetaritza feminista: intersektionalitatea txertatzeko ahalegina.** Maria Gorosarri González. EHUKo irakaslea eta ikertzailea.
44. **Adimen artifiziala eta generoa.** Ondare. Naiara Aginako Bengoa, Olatz Arbelaitz Gallego, Borja Calvo Molinos, Iñaki Inza Cano, Itziar Irigoien Garbizu, Elena Lazkano Ortega, Alex Mendiburu Alberro, Usue Mori Carrascal, Olatz Perez de Viñaspre Garralda, Ana Zelaia Jauregi.

- 45.** [Settler Colonialism eta Kolonialismoaren bilakaerak: hurbilketa historiko bat oraina hobeto ulertzeko.](#) Endika Rodriguez Martin. EHU. Soziologia eta Gizarte Lana. Mar Gijón Mendigutia. EHU. Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia.

